

Antxiñako fotografixak



Gari-jotiak

Gizurra dirudi, baiña egixa da. Zelai, baso edo eraikuntzaz beteta ikusten ditudun Oñatiko lur-sail ugarritan **garixa** eta beste labora batzuk erein ziran orain dala berrogeita bost bat urterarte. Artua, gutxi-asko, orainddiok be hartzen da leku batzuetan. Garixak lan-klase desbardiñak eskaketan zittuan: esate baterako, ereittia, jorraketia, ebatia, gari-sortak lotzeia, sortak metaketia, makiñan jotia, alia gordetia, alia ixotera errotara eruatia, gero urunarekin labesua eta opillak egitteko. Gari-jotia lan gogorra eta zikiña izaten zan, bestiak beste, aguro egin biharrekua zalako eta hauts asko ataraten ebelako. Baiña aldi berian jai moduko bat be bazan, garixa joten euen baserrikuaz gain inguruko etxietako pertsona zahar, gazte eta ume asko txandaka lagunketara etorten ziralako alkartasun ederrian. Egunian zihar ogixa, gaztaia eta ardaue egoten zan langilliantzat eta, lana akabo eta gero, afari-merienda.

Argazki honeittan gari-jote egun bateko irudixak ikusi geinke. **Mirafloresen** atarata dagoz, orain dala urte batzuk desagertu zan **Santxolopeztegi** auzoko baserriaren etxe osteko larraiñian. Ezkerreko fotografixan gari-joteko makiñiaren inguruan agerketan diranak honeitxek ditudzue. Aurrian eskumatarra: **Gillermo Guridi**, Narbaixenekua eta makiñiaren arduraduna. Atzeratuago: ezkerretan makurtuta, **Maria Anjeles Gordoia**, Zelaitta Haundikua; honekin dagueen umia, **Maria Dolores Ormazabal**, Mirafloreskua; eta **Julian Ormazabal**, Mirafloresko aitta; illara horretako eskumatan zutik, **Ladislao Aranburu**, Goittikua; **Iñazio Letamendi**, Mirafloreskua; eta X.X. Atzerago: **Jexus Gorrotxategi**, Zelaitta Txikikua; honein aurrian, **Iñazio Anduaga**, San Antue kalekua; **Petra Aranburu**, Goittikua; **Luxia Gorrotxategi**, Zelaitta Txikikua; **Joxe Agiriano** (?), Zelaitta Haundiko morroia; **Gregori Erostegi**, Kortazarkua; **Baxilio Aranburu**, Goittikua; **Joxe Gorrotxategi**, Zelaitta Txikikua; **Alejandro Gorrotxategi**, Zelaitta Txikikua; eta, burua sakuaz tapauta, **Maria Luisa Agirrebengoa**, Maala Etxebarrikua.

Eskumako argazkixak gaztae-jatiaren eta ardaue-traguaren irudixa erakusten dosku. Aurreko fotografixan agerketan diran baten batzuk badatoz, baiña ez dan-danak. Behetik gora eta ezkerretik eskumara honeik ezagutu ditudugu. Behe-behian lurrian jarritta: **Iñazio Anduaga**; **Joxe** eta **Jexus Gorrotxategi**. Atzerago lurrian jarritta: **Luis Agirrebengoa**; **Baxilio Aranburu**, **Maria Dolores Ormazabal** umetxua altzuan dakola, **Gregori Erostegi**, **Petra Aranburu**, **Maxima Agirrebengoa**, **Ladislao Aranburu**, aulkixan jarritta eta **Maria Luisa Agirrebengoa** ertzian. Atzerago: **Joxe Agiriano** (?), **Dolores Agirre** eta **Pedro Guridi**, Mirafloresko birramona eta birraittona, **Luxia Gorrotxategi**, eta **Iñazio Letamendi**.

Makiña horrek berrogei bat baserri-tako garixak jotzen zittuan, San Prudentzio, Zubillaga, Madalena eta Garibai auzuetan. Zubillaga eta Garibaiko hamar bat etxeren artian erosittakua zan eta Zubillagako **Narbaixenian** gordeten zan. Baserri horretako **Gillermo Guridi** ibilli zan urte askuan makinista, baitta haren semia be, **Fermin Guridi**. Gari-jotiari 1960ko hamarkadiaren lehenengo urtietan itzi xakon.

J.E.

Fotografixak Zelaitta Haundiko Juanito Gordoak atara zittuan orain dala 65 urte. Guri Rosa Mari eta Dolores Ormazabal ahizpak eskuratu doskue. Argibidiak, berriz, Dolores eta Rosa Marirenak ez ezik, Fermin Guridi eta Juan Martin Elexpururenak be badi-ra. Milla esker danoi!